

Arizmendiarietaren gogoeten zerrenda bat bidaltzen dizuegu, PERTSONARI buruz, joan den uztailenkoak osatzera datorrena.

Interesgarria dena eta funtsezkoa ez dago Kooperatibetan, kooperatibistengan baizik; ezta demokrazian ere, demokratengan baizik. Ideietan baino gehiago, bizipenetan. 024

Gizakia goseagatik eta neke fisikoagatik ez ezik, gogaitasunagatik eta tristuragatik eta bizitzan ilusio eta poztasunik ez izateagatik ere hiltzen da. 005

Gizartearen ongia ziurtatzeko modurik eraginkorrena da pertsonen perfekzioaren bila aritzea modu desinteresatuan. Zenbat eta hobea izan artista orduan eta hobea izango da sinfonia. 130

Zer pena Pitagoras zintzoa gaur egun bizirik ez egotea! Seguru nago hipotenusaren karratua eta katetoak direla eta ez direla, bere alferrikako teoremaren orde zera egiaztatuko zuela: kontrako ekipoaren penalty arearen berbidura dela tokiko ekipoaren penalty areak eta ekipoaren "zaleek" batera okupatzen dituzten metro koadroen kopurua zale horien oihuen bolumenarekin biderkatuta ateratzen dena. Norbaitek zalantzarik baldin badauka, arbitroei galdetzeko. 137

Arreta polarizatua, nortasunaren formazioa, norbere buruaren kontrola, prestakuntza teknikoa, indar morala, kontzientzia soziala arretaz zaindu behar dira gaur egun niaren oreka mantendu eta bizitzan galdutako eta bereizitako tanta baten antzera arrastatuta izatea nahi ez bada. 139

Kooperatibak ahalik eta arreta handiena jarri behar du gizakiarengan, baina idealizatu barik, baizik eta den bezala hartuta, bere akats eta bertuteekin; eta kooperatibismoa egitean kontuan izan behar da gizakia, ahal dela, eta norberaren jarreraren bitartez, akatsak arinduz eta bertuteak sustatuz. 371

Arazo ekonomiko, politiko eta sozial guztiak, azken finean, gizakiaren arazoa baino ez dira. 017

Toki batean bere duintasunaz ohartzen diren gizakia, askatasuna maite dutenak eta justizia sozialaren eskakizunei erantzun eta denontzat berdina den elkartasun erregimen bat onartzeko gai direnak baldin badaude, hortxe egingo ditu erroak kooperatibismoak eta hortxe itxaron daiteke kooperatibak fruitu onak ematea. 025

Gizatasuna, gizakia (izaki inteligentea, librea eta arduratsua) egitura eta espiritu kooperatiboaren ardatza da. 027

Sinistu egin behar dugu benetako aberastasuna gure nortasunaren garapen integralean dagoela. Hori lortzen ez dugun bitartean, ondasun materialak modu zuzenean banatzea lortuta badugu ere, esklabo izaten jarraituko dugu. 034

Hitz batean, munduan planteatutako arazo eta kezka guztiak gizakia baino ez direla esan daiteke. 036

Onak izateko betebeharra zoriontsuak izateko eskubidea baino premiazkoagoa da. 157

Gizakiaren benetako dimentsioa bere bihotza neurtuta ikusten da eta ez bre inteligentziaren zorroztasuna edo helmene kontuan hartuta. 166